



ARGIBIDE OROKORRAK ETA BALIOESPENA

1. Proban bi aukera (A eta B) emango dira eta horietatik bat hautatu beharko duzu.
2. Soilik hautatu duzun (A ala B) aukerako galderei erantzun. Behin aukera bat hautaturik, soilik balioetsiko dira aukera horretatik erantzundako galderak.
3. Atal bakoitzean adierazten da gehienez lor daitekeen puntuazioa.

A AUKERA

A) PROBA TEORIKOA

Erantzunetatik bat bakarrik da zuzena. Erantzun zuzena: 0,30. Erantzun okerra: - 0,10. Erantzunik gabe: ez da kontuan hartzen. Puntuazioa gehienez: 6 puntu. Puntuazioa gutxienez: 0 puntu.

1. Enpresa sistema orokorra dela esaten dugunean, zera esan nahi dugu:
 - a) Enpresa ingurunearekin harremanean sartzan dela, parte den sistema zabalagoekin (sistema ekonomikoa, sistema soziala, e.a.) elkarrengandik duela.
 - b) Bere elementuetako batean edo azpisisteman gerta daitekeen edozein eraginek, gainerakoengan eta sistema osoan eragiten du.
 - c) Enpresan badirela inguruan gertatzen diren aldaketetara egokitzeko mekanismoak, esaterako, eskaria aldatzea.
2. Ondoko baieztapen hauetatik, zein da zuzena? Erantzukizun Mugatuko Sozietateak:
 - a) Bazkide bakar batekin era daitezke.
 - b) 3 bazkide edo gehiagorekin eratu behar dira nahitaez.
 - c) 5 bazkide edo gehiagorekin eratu behar dira nahitaez.
3. Ondoko taldeetako zeinetan sartuko zenituzke Sozietate komanditarioak?
 - a) Sozietate pertsonalistak.
 - b) Sozietate kapitalistak.
 - c) Gizarte-ekonomiako enpresak.
4. Ondoko kasuetako zeinetan hitz egin dezakegu *Dibertsifikazio heterogeneoaz*?
 - a) Arropa-enpresa bat perfume-merkatuan sartzan da.
 - b) Hortzetako eskuilak ekoizten dituen enpresa batek erabakitzen du hortzetako pasta ekoiztea.
 - c) Sukaldeak ekoizten dituen enpresa batek erabakitzen du mikrouhin labeak ekoiztea.
5. Fabrikatzaile batek, merkatu berri batean sartzan, erabakitzen du bere banaketa-kanalak erabili, eta beste fabrikatzaile batzuen produktuak berekin batera saltzea, kostuak murriztu ahal izateko. Kontzertazio-eredu honi deitzen zaio:
 - a) Piggyback.
 - b) (UTE) Aldi Baterako Enpresa Elkarteak.
 - c) (AEIE) Ekonomia Intereseko Europako Taldea.
6. Ondare-elementuaren edo elementuen balioa, egun jakin bateraino kontuetan egindako idatzoharretatik eratorritakoa, deitzen da:
 - a) Kontuaren izena.
 - b) Kontuan egindako idatzoharra.
 - c) Kontuaren saldoa.



7. *Zordunak* kontuak honakoa adierazten du:

- a) Ondasunak
- b) Eskubideak
- c) Obligazioak

8. Berehalako epemuga duten epe laburrerako zorrak ordaintzeko altxortegia edo erabilgarria sortzeko enpresak duen gaitasuna aztertzen duen ratioa da:

- a) Kaudimen-ratioa.
- b) Berme-ratioa.
- c) Berehalako erabilgarritasunaren ratioa.

9. Berehalako erabilgarritasunaren ratioa kalkulatzeko zatiketaren bidez alderatuz ondoko hauen arteko erlazioa:

- a) Erabilgarria eta pasibo zirkulatzailerak.
- b) Aktibo osoa eta enpresak epe laburrera zein luzera dituen zor guztiak.
- c) Aktibo zirkulatzailerak eta pasibo zirkulatzailerak.

10. Kopuru berdineko baina mugaegun ezberdineko kapitalen artean, mugaeguna lehenago dutenek:

- a) Mugaeguna geroago dutenen finantza-balio berdina dute.
- b) Mugaeguna geroago dutenen finantza-balio handiagoa dute.
- c) Mugaeguna geroago dutenen finantza-balio txikiagoa dute.

11. Ondokoen artean esan zein EZ den epe laburrerako finantza-baliabidea:

- a) Funtzionamendu-finantzaketa.
- b) Merkataritzako deskontua.
- c) Leasing finantzarioa.

12. Ondasun baten balio galera funtzionala ondoko arrazoietatik gertatzen da:

- a) Denbora pasatu da, besterik gabe.
- b) Ondasuna gutxi-asko erabili da.
- c) Teknologia berriak agertzea.

13. Just in Time sistema ondoko hauetan oinarritzen da:

- a) Eskarian.
- b) Eskaintzan nagusiki.
- c) Eskaintzan bakar-bakarrik.

14. Kostu finko osoa zati produkzio-unitate kopurua, honela deitzen da:

- a) Batez besteko kostu finkoa.
- b) Batez besteko kostu aldakorra.
- c) Batez besteko kostu osoa.

15. Ondokoen artean esan zein aldagai EZIN den kontrolatu:

- a) Produktua.
- b) Prezioa.
- c) Lehia.

16. Xehekariak lurralde batean saltzeko eskusibaren dutenean edo gutxieneko erosketa-kopuru bat egiteko konpromisoa dutenean, ondoko banaketako kanal hau erabiltzen da:

- a) Zuzena.
- b) Laburra.
- c) Luzea.



17. Antolakundeko pertsonak, lortu nahi diren helburuak erdiesteko, beren eginkizun eta betebeharrak betetzea helburu duen funtzioa deitzen da:

- a) Plangintza-funtzioa.
- b) Antolaketa-funtzioa.
- c) Giza baliabideak kudeatzeko funtzioa.

18. Ondoko autoreen artean, zeinek garatu zuen gizakiaren ikuskera mekanizista eta ekonomikoa, langilearen faktore psikologikoak eta nekea kontuan hartu gabe?

- a) Frederick Taylor.
- b) Henri Fayol.
- c) Elton Mayo.

19. Ondoko autoreen artean, zeinekin lotuko zenuke X eta Y teoria?:

- a) Maslow.
- b) Herzberg.
- c) McGregor.

20. Balio-katean, zein jardueraren barruan jarriko zenituzke hornitzaileei eginiko itzulketak?:

- a) Barne logistika.
- b) Kanpo logistika.
- c) Marketina.

B) PROBA PRAKTIKOA

LEHEN ARIKETA. (GEHIENEZ ERE: PUNTU 1)

Instalazio Elektrikoak Koop. S. Enpresak bost inbertsio-proiektu, A, B, C, D eta E deitu dituenak, burutzeko aukera du. 100.000 euro ditu negozioa hedatzeko. Proiektu bakoitzean beharrezkoak diren inbertsioak, espero diren kutzako emari garbiak eta iraupena ondoko hauek dira:

INBERTSIO-PROIEKTUA	INBERTSIOAREN ZENBATEKOA	1. URTEA	2. URTEA	3. URTEA	4. URTEA
A	25.000	8.000	6.500	7.200	6.300
B	35.000	4.875	9.575	13.250	17.540
C	47.000	6.000	7.500	22.000	27.000
D	38.500	6.500	12.500	25.000	20.000
E	47.200	14.000	14.500	15.000	23.000

Kapitalaren kostua % 6koa bada, **ordenatu** Inbertsio proiektuak Errekuperazio-epe eguneratuaren arabera eta **adierazi** zein proiektu burutuko diren. Demonstratu.

Oharra: Bi hamarrenekin biribildu zifrak.



BIGARREN ARIKETA. (GEHIENEZ ERE: 3 PUNTU)

Ondoko hau da Instalazio Elektrokoak Koop. S. enpresak 2006. urtearen amaieran aurkeztu dituen bere ondareko elementuen saldoak:

Lege-erreserba	15.900
Ibilgetua besterentzeagatik epe laburrerako kredituak	6.800
Epe laburrerako ibilgetuaren hornitzaileak	11.250
Zordunak	3.850
Epe luzerako ibilgetuaren hornitzaileak	45.300
Kutxa	3.800
Bezeroa, kobratu behar diren merkataritzako efektuak	7.300
Gizarte Segurantzako erakunde hartzekoduna	5.120
Produktu bukatuak	1.900
Epe luzerako zorrak kreditu-entitateekin	65.000
Altzariak	8.000
Epe laburrerako zorrak	10.050
Ibilgetu Materialaren Amortizazio Metatua	¿ ?
Bankuko k/k.	22.100
Hornitzaileak, ordaindu behar diren merkataritzako efektuak	4.250
Kapital soziala	70.000
Bezeroa	8.450
Zerbitzua ematen duten hartzekodunak	7.480
Lehengaiak	1.400
Galerak eta irabaziak (1)	¿ ?
Epe laburrerako zorrak kreditu-entitateekin	20.400
Makineria	18.400
Eraikuntzak	170.000
Industria jabetza	14.650

Ustiapen-sarrerak 40.491 eurokoak izan ziren, eta ustiapen-gastuak 24.360 eurokoak.

Ekitaldi ekonomiko honetarako, finantza-gastuak kalkulatzeko diraren jakinik zorraren batez besteko interes-tasa % 6 izan dela.

Irabaziaren gaineko Zergaren ezarpen-tasa % 35 da.

(1) Galerak eta Irabaziak lortzeko egin diren kalkuluak idatz itzazu.

HAU ESKATZEN DA:

A) Egoera balantzea idaztea, ondare masen arabera sailkatua: Aktiboa likidezia txikienetik handienera eta pasiboa galdagarritasun txikienetik handienera. (1,75 puntu)

B) Adierazi enpresaren finantza-egoera, erabilitako ratioak aipatuz, eta arrazoitu erantzuna lortutako emaitzak interpretatuz (1'25 puntu).

OHARRA: Bi hamarrenekin biribildu zifrak.



B AUKERA

A) PROBA TEORIKOA.

Erantzunetatik bat bakarrik da zuzena. Erantzun zuzena: 0,30. Erantzun okerra: - 0,10. Erantzunik gabe: ez da kontuan hartzen. Puntuazioa gehienez: 6 puntu. Puntuazioa gutxienez: 0 puntu.

1. Azpisistema fisikoa:

- Bi azpisistematan banatzen da: produkzioa eta marketina.
- Lau azpisistemak osatzen dute: plangintza, antolamendua, zuzendaritza eta kontrola.
- Bi azpisistemak osatzen dute: finantzaketa eta inbertsioa.

2. Bi bazkide mota bereizten dira sozietate kolektiboan:

- Bazkide kapitalistak edo kolektiboak eta industria-bazkideak.
- Lan-bazkideak eta industria-bazkideak.
- Bazkide komanditarioak eta industria-bazkideak.

3. Enpresa bat bere buruaren hornitzaile izatera pasatzen denean, honetaz hitz egiten da:

- Atzeranzko integrazioa.
- Aurreranzko integrazioa.
- Azpikontratazioa.

4. Eman ezazu erantzun zuzena. Esportazioetan, banatzaileak:

- Esportatzailearen produktua erosi eta berriz saltzen du
- Enpresaren izenean jarduten duen ordezkaria da.
- Bere merkatuko bezeroen eskaerak besterenganatzen dizkio ordezkatzeko duen enpresa esportatzaileari.

5. Enpresa baten kapital likidoa edo ondare garbia edo soilik garbia, kalkulatu da:

- Aktiiboari pasiboa kenduz.
- Aktiiboa eta pasiboa batuz.
- Pasiboari obligazioak kenduz.

6. *Informatika aplikazioak* kontuak honakoa adierazten du:

- Ondasunak
- Eskubideak
- Obligazioak

7. Merkataritza-sozietateetako bazkideek eginiko kapital-ekarpenen balioa erregistratzen duen kontuari, bai dirutan (diruzkoak) bai ondasun eta eskubidetan (ez diruzkoak), honela deitzen zaio:

- Kapitala.
- Kapital soziala.
- Borondatezko erreserbak.

8. Enpresa baten lehentasunezko helburua izan behar da:

- Sarrerak maximizatzea.
- Mozkina maximizatzea.
- Errentagarritasuna maximizatzea.

9. Enpresa porrot-egoeran legoke berme-ratioa ondoko hau balitz:

- 1 baino handiagoa.
- 0.
- 1 baino txikiagoa.



10. Interes-tasa bat ezagututa, edozein kapitalen etorkizuneko balioa kalkulatzeari, honela deitzen zaio:

- a) Kapitalizazioa.
- b) Eguneratzea.
- c) Cash flow.

11. Jesapen batean, balio izendatuaren eta jaulkipen-prezioaren arteko diferentziari honela deitzen zaio:

- a) Amortizazio-epea.
- b) Errenbultso-prezioa.
- c) Jaulkipen-saria.

12. Eman ezazu erantzun zuzena:

- a) Obligazioek ez dute sozietatearen kudeaketan parte hartzeko eskubiderik ematen.
- b) Akzioen dirua itzultzen ahal da epemuga igaro ondoren.
- c) Obligazioek maiztasun jakin bateko errendimendu konstanteak sortzen ditu (interesak), aldeztatik ezagutzen direnak, enpresak lortutako emaitzak edozein izanik ere.

13. Produktibitatea hazteak esan nahi du:

- a) Output gehiago lortzea lehengo input kopuru berdina erabiliz.
- b) Lehengo input kopuru berdina lortzea, produkzio-prozesuan lehen behar genuena baino output kopuru txikiagoa aplikatuz.
- c) Output kopuru txikiagoa lortzea lehengo input kopuru berdina erabiliz.

14. Kostu osoa zati produkzio-unitate kopurua, honela deitzen da:

- a) Batez besteko kostu finkoa.
- b) Batez besteko kostu aldakorra.
- c) Batez besteko kostu osoa.

15. Ondokoen artean esan zein aldagai EZIN den kontrolatu:

- a) Produktua.
- b) Prezioa.
- c) Ingurunea.

16. Eman ezazu erantzun zuzena:

- a) Erraz alda ezin daitekeen tresna da prezioa.
- b) Prezioa tresna oso lehiakorra da.
- c) Prezioak ez du eragin psikologikorik kontsumitzaileengan.

17. Aurreikusitako helburuak noraino bete diren egiaztatu, balizko desbideraketak aztertu, horien arrazoiak ulertu eta zuzentzeko neurriak proposatzeko jarduerak gainbegiratzeko ardura duen funtzioari honela deitzen zaio:

- a) Plangintza-funtzioa.
- b) Antolaketa-funtzioa.
- c) Kontrol-funtzioa.

18. Ondoko autoreen artean, zeinek garatu zuen xahuketa desagerraraztera bideraturiko teoria bat, enpresaren oinarritzko eginkizunak adieraziz eta, ondorioz, enpresa izaera funtzionaleko ataletan bananduz?

- a) Frederick Taylor.
- b) Henri Fayol.
- c) Elton Mayo.



19. Ondoko autoreen artean, zeinek lotuko zenuke igurikimenei buruzko teoria?:

- a) Maslow.
- b) Herzberg.
- c) Vroom.

20. Produktua bezeroarengana iristeko egin behar diren komunikazio-jarduerak ondoko honi dagozkio:

- a) Marketina.
- b) Barne logistika.
- c) Kanpo logistika.

B) PROBA PRAKTIKOA

LEHEN ARIKETA. (GEHIENEZ ERE: PUNTU 1)

Garbiketa-enpresa batek 372 euroko kostu finkoak ditu egunero, eta 7 euroko kostu aldakorak lan-ordu bakoitzeko. Zerbitzu bakoitzeko 90 € kobratzen ditu, eta zerbitzu bakoitzean batez beste 4 ordu sartzen ditu.

HAU ESKATZEN DA:

- A. Zenbat bezero artatu behar ditu egunero enpresaren errentagarritasun-atalasea erdiesteko?
- B. Zenbat bezero artatu behar ditu egunero 248 € irabazteko?
- C. Irudikatu grafikoki errentagarritasun-atalasea, galeraren eremua eta irabazien eremua seinalatuz.

BIGARREN ARIKETA. (GEHIENEZ ERE: 3 PUNTU)

FARADAY KABLEAK sozietateak kable elektrikoa fabrikatzen du. 2006ko abenduaren 31n, ondareko elementu hauek aurkeztu zituen:

- Industria-lantegia.
- Hari elektrikoa egiteko makinak, etab.
- Patente baten kontzesioa du.
- Zorra dute berarekin inguruko enpresa batera garraio bat egiteagatik.
- Bulegoetako ordenadoreak.
- 1 Tm kobre zor du, kable elektrikoa fabrikatzeko, letren bidez ordaintzeko.
- 18 hilabeterako zorra du makineriagatik.
- Faktoretako zorra dute berarekin, kable elektrikoazko 50 bobina saltzeagatik.
- Mozkinak, legez banatu ez direnak.
- IBERDROLARI hilabete honetako faktura zor dio.
- Enpresako kutxan gordetako eskudirua.
- Kontu korrantea du LA RIBERA bankuan.
- Letren bidez ordaintzeko zorra dute berarekin, kable elektrikoazko 20 bobina saltzeagatik.
- Eraiki gabeko lursaila.
- Ekitaldi honetako mozkinak.
- ITURRAMAko Aurrezki Kutxak 5 urterako mailegua eman zion.
- 4 hilabeterako zorra du lursaila erosteagatik.
- Foru Ogasunarekin zorra du zergengatik.
- Faktoretako zorra du kable elektrikoa produzitzeko materialen erosketagatik.
- Kobre eta kable elektrikoa egiteko beste material batzuk ditu biltegian.
- Programa informatiko batzuen jabea da.
- Zorra dute berarekin bulegoko ordenadoreak saltzeagatik.
- Enpresari hasiera emateko ekarpena.
- Kable trifasikoazko 80 bobina, saltzeko prest.



Horrez gain, enpresak ondoko informazio hau ematen du:

Aktibo osoa	659.960
Funts berekiak	408.310
Pasibo galdagarria	251.650
Zorraren batez besteko interes-tasa	%12
Irabaziaren gaineko zerga	%35
Mozkinak interes eta zergen aurretik	120.000
Sarrerak salmenten bidez	345.600

HAU ESKATZEN DA:

A) Balantze bat egitea aipatutako ondareko elementu bakoitzaren izen osoa adieraziz, eta ondare-masak honela ordenatuz: Aktiboa likidezia handienetik txikienera eta pasiboa galdagarritasun handienetik txikienera.

Kalkulatu Mozkin garbia. Kopuru hau lortzeko egin diren kalkuluak idatz itzazu. (1'75 puntu)

B) Kalkulatu errentagarritasun ekonomikoa, finantza errentagarritasuna, aktiboen errotazioa, salmenten gaineko marjina eta esan bi osagaietako zeinetan oinarritzen duen mozkin, (0,5 puntu)

C) Hurrengo ekitaldi ekonomikoan, enpresak inbertsio bat egin du aktiboa 300.000 €-tan igoz eta interesen eta zergen aurreko mozkin jaitsi egin da, 44.000 € izanik.
Aipatu inbertsioa finantzatzen badu, soilik kapital-gehikuntza (funts berekiak) erabiliz, Mozkin Garbia 8.971'3 € da. Aldiz, mailegu baten bidez osorik finantzatzen badu, pasibo galdagarria gehituz, Mozkin Garbia -22.198 € da. Komenta ezazu bi egoeretako palanka-efektu finantzarioa (0'75 puntu) (1)

(1) Azalpena laguntzeko egin diren kalkuluak idatz itzazu.

OHARRA: Bi hamarrenekin biribildu zifrak.